

NEVADAKO EUSKAL ZANTZUA

LARRESORO

Basamortua da Nevada, basamortua idorra, basa, gogorra. Euskal Herria baino hamabost aldiz zabalago den amerikatar erresuma honetan miloi erdi bat lagun baizik ez dira bizi. Hots, Las Vegas-en (munduko jokoaren hiriburua) 150.000 biztanle bizi dira gaur; eta Renon eta inguruetan (Carson-city, Virginia-city eta abar) beste 250.000 bat. Ezer ez bide da gelditzen beste guztietarako (Winemucca, Wells, Elko, Lovelock); eta horixe da egia: Nevada huts-hutsa dagoela, Sahara edo bezelatsu. Boise-tik irtenda (Idaho-ko hegoaldeetik, beraz), eta Twin-Falls-en eta Bruneau-n erresuma uztean, basamortu itzela hasten da; eta horrelaxe igarotzen dira ondoko kilometroak oro, ehunka, bakar-dade beldulgarrian, noiztenka bakarrik «ranch» batek edo bestek etena. Laku gaziak ageri dira, beren azkenetan eta ia-ia zuritan lehorturik; lurrikarazko eskualdeak topatzen dira, sartzeko debekaturik; mendi soil-soilak eskuin eta ezkerretan, beltzak, moreak, bedar izpirik gabeak; eta noski, zuhaitzik batere ez kilometro askotan barrena. Horra hor Nevada zer den.

Nevadan artzain egon diren euskaldunak, horretarako, dudarik gabe eraman dute Idahokoek gaur daramatena baino bizimodu gogorragoa. Idaho, bere hegoaldean bertan ere, ez da Nevada; eta jakina, Euskal Herrian ezagutzen ez den natur-gogortasuna jasan behar izan dute klimaz eta gizarte-aurkaritzaz. Dominique Latsalte xuberotarrak, horretara, Nevada-ko artzain guztien eredu (gaurko senadorea haren semea da) urterik gogorrenetan mendian barrena ibilitalakoak, eta hil arte xuberotar gartsu egonak, berandu bada ere merezi luke euskaldunen gorazarrea; ezen Nevada-ko lehendabiziko euskaldun haiek, gerora amerikatarren errespetoa lortu artean, «parien» bizimodua ezagutu baituzten, denaz gain hizkuntzaren barrera osoak bazterturik. Gaur euskaldunek Nevadan segurtua duten itzala, soprikariotan eta lan nekezetan lortua da.

Luzaidar bat agurtu nuen Elko-n, esate baterako, oraindik ere iaioago euskaraz ari ingelesez baino; eta Nevada-ko mendialdeetan 51 urte pasa dituela esan zidan, eta gehienetan bakar-bakarrik paseak izan dituela. Zinez esan daiteke Nevadako euskalduna «pioneer» izan dela, eta bortitza ere izan dela ezinbestean; eta horri esker, eta ez besteri, irten dela aurrera. Bertan jaio diren euskaldunek, hortaz, ahanzi egin dute beren euskaltasuna, eta tema bakarria izan dute: gurasoen ifernuari laga eta amerikartartzea.

Elko-n ez dago euskal-etxerik (eta Reno-n ere ez). Baina Elko-ko euskaldunen arnasa entzun daiteke oraindik, batez ere urtero eta udan Elko-tarrek bildu ohi duten jai-egun ederrengatik. Elko-ko irratiak, bestalde, ordubetez hitzegiten du euskaraz igandero; eta oraingo ikustamenean ere, Leniz jaunaren onginahiari esker, bigarren aldiz izan dut Elko-ko euskaldunei euskaraz mintzatzeko aukera eta poza.

Lopategi bertsolariaren anai (Jesus Mari izenez) izan da oso luzaz Elkoko euskal bultzada guztien eragile; ta gaur bertan ere, iruditu zaidanez, nekez egin daiteke Elkon Lopategirekin kontatu gabe.

Bertako euskaldunen aldizkaria («Euskorria»), gaur suntsitua, Lopategik berak idazten zuen, euskaraz eta ingelesez, baita ordaintzen eta zabaltzen ere,

rik uste. Eta orain dela hiru urte etorri nintzenean, Elko-ko euskal irratiaia beraren eskuetan zegoen. Ilunpean eta Euskal Herritik urrun egiten den lan eskargabe honek txaloe merezi du denengandik.

Orain lehendakaria den P. Ormazaren Elko-ko Euskal Elkarteak 300 lagun ditu. Mallea, Lopategi, Leniz ikusita, nekez pentsa daiteke berak bizi direño euskal arnasa geldituko denik.

Reno besterik da, basamortuko mugan kokaturik, Reno joko-hiria izanik ere (baina ez joko-leku huts), badu bere biziera berezkoa. Alde batetik, Kaliforniak, 20 miloi lagun, berrogei aldiz Nevada); eta bestetik, erresumako administrazioa eta unibertsidade nagusia bertan izanik, Reno guztiz herri bizia delako. Honek ez dio kentzen bere turismo-kutsua, koloretan argitsu eta gaueko bizitasunean txapeldun Reno. Bertan 3.000 bat euskaldun bizi dira, ipartarrak gehienak, eta bertako euskal elkarteak 800 lagun ditu.

1969-az geroztik, eta Jon Bilbao-ren eragini esker, «Basque Studies» deritzen euskal saila ari da euskal lanetan Reno-ko unibertsidadean. Zortzi mila ikasle daude bertan.

Euskal iker-saila gero eta hobeki ari da (ikus, euskarari buruz, «Urquijo Mintegiak» argitara duen banako berezia, 1972). Alde batetik, Jon Bilbao beraren lana dago: euskal bibliografi-lan nekeza eta idorra, euskal arazoei buruz, gaur arte egin den izkribu-bilduma-

rik osoena, bihar argi-iturri eta euskal bilaketan arituko direnentzako laguntza bikain.

Bestetik badago, era berean, Bilboak eta Douglass-ek Ameriketako euskaldunei buruz egiten ari diren ikertzapen zabalak (euskaldun ahantzirik baldin bada munduan, Mendebaldekoen gorabeherak ez dira, izan, oso ezagunak...) berriki ingelesez liburu mardul batetan argitaraturik: «Amerikanuak, Basques in the new World» 519 orrialde, Nevada-ko University-k argitaratua. Reno-ko Unibertsidadean dago ere, euskarari buruz agian bilatzaile aparta, Jacobsen hizkuntzalaria.

Eta hantxe topatu dut, uste ez nuelarik, Gorka Aulestia euskaltzalea, orain Lauaxetaren oroitzapenetan goratzarre bat moldatu nahian. Zauskada haundia hartu nuen Renon, Jacobsen-ek Gardner-tarregana eraman ninduenean, baina gai honetaz beste artikulu batez mintzatzeko natarzaie xehekiago.

Oñatin izanek diren gazteekin izanek gara Boisen, eta dudarik gabe, han izan zirenek hobeki konprenitzen dituzte orain gure gorabeherak, besteak baino; eta sorterrira itzultzeko ere gainerakoak baino aise gertuago daude «oñatiarrak» beste iñor baino. Nola onar liteke, hortaz, Reno eta Oñatiko Unibertsidadean artean sortzen ari den katea hautsi nahi izatea?

Berriro ere hobe da batzuen borondatea, beroien adimen-zorroztasuna baino. Zeren eta, Boise-Reno —Oñati hiru-kotea apurtuz, nor irabaziko ote luke eta nor—, berriz, galduko? Erantzunaren zai nauka irakurleak. Ez euskerari, ez euskal herriari egiten die kalterik Reno-ko Unibertsidadean orain dela zortzi urtez geroztik euskal sail bat izateak, eta irakasleen eta ikasleen mailetan hangoen eta hemengoen artean sor daitezkeen loturak, ez dira benetan, guretzako kaltegarri. Teoritan eta erreze-lo alferretan galdu baino, hobe dugu Reno-ko Unibertsidadearen bitartez Euskal Herrira etorri direnekin hitzegitea, asmo hori oso egokia eta onuragarria dela geure kabuz konturatzeko.

Berriz ere, mozorroz ari dira besteak, eta euskal herri xeheak aise nahasten ditu etxeokak eta etsaiak. Txalo, beraz, niketz Reno-ko euskal saila bultzatzen duten lankideei.

